

## **ETORKIZUNeko EUSKAL UNIBERTSITATERANTZ, ALDATS GORA, BAINA AURRERA**

Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) bere jardunaldiak Iruñean egiten hasi zenetik hogeita bost urte pasatu diren urte honetan, gorabehera handiak gertatzen ari dira unibertsitatearen inguruan, gogoetarako bidea ematen digutenak, eta erantzun serioa eskatzen dutenak. Horiei buruzko hausnarketa egiten saiatuko naiz artikulu honetan, etorkizunari begira hain garrantzitsu izan daitekeen arlo horretako argi-ilunak hobeto ikusteko asmoz.

Zurrunbiloz beterik dago euskal unibertsitateranzko korrontea. Egoeraren azalpenerako, aski izango da kasu bat —sistemaren atorraren botoi bat— aipatzearekin, UEUrekin zerikusia duena. UEUkideek ez genuen ondo hasi urtea, ez horixe, us-tez pozgarri izan zitekeena, negargarri bihurtu baitzen. Zer dela eta? Iruñeko hogeita bosgarren ekitaldia antolatzen genbiltzala, Nafarroako gobernukideengandik etorri zitzaigun berriak ilundu zuen panorama: ez genuen gehiago diru-laguntzarik izango uztaileko jardunaldietarako, nahiz aurreko hogeitalau urteotan Iruñeko uda unibertsitarioa duintasunez bete; aurreko hogeitalau urteetan diru-laguntzak urriak izan baziren ere (sekula ez bizpahiru miloitatik gorakoak), oraingoan ezer ez. Bistan da pobrearen etxean gutxirekin konformatzen garena;

baina apurraren faltan, estu. Egia esanda, hain okasio biribila ospatzeko ere —zilarrezko eztaiak ez dira edozer!—, ez genuen gehiegi espero. Nolanahi den ez zitzaigun burutik pasatu, gurekin hain zital, zikoitz eta eskulabur jokatu zuten berberrek guztiz eskuzabal jokatu behar zutenik ordura arte udako jardunaldirik antolatu gabe zeudenekin, hots, UPNA eta *Opus Dei* izeneko unibertsitateen udako ekimen jaioberriekin, haienztat laurogei milioi inguru eskaini baitzituzten. Dena azal zezakeen xehetasun txiki bat zegoen tartean, ordea: unibertsitate horiek antolatutako jardunaldiak *gaztelaniaz* izango ziren. Inozoak gu, nafar agintariak unibertsitatearen aldeko ekimenak bultzatuko zituztela uste izateagatik! Benetan nahi zutena, gaztelaniazko ekimenak bultzatzea zen; neguan bezala, udan ere. Orduan gogoratu nintzen Xalbador bertsolariaren hitzez, “ama ukatu duten / haur dohakabeak” zehatz deskribatzen dituzten bertso zoragarriez. Izan ere, beren burua eta jatorrizko arima —nafartasuna eta euskara, alegia— ukatu dituzten nafar horiek baitira, Nafarroa indarrez konkistatu zuten Gaztelako armadaren ondorengoei jarraipena ematen diotenak, dela hizkuntzaren arloan, dela politikaren arloan, dela unibertsitatearen arloan.

Baina kontuak zer diren, UEUk ereindako hazia bere fruituak ematen hasi da aspalditik, Nafarroan ez eze Euskal Herriko beste lurraldeetan ere, eta euskaraz arituko den urte osoko unibertsitateranzko proiektua —Euskal Unibertsitatea, alegia— poliki-poliki gauzatuz doa, nahiz eta helmugara iristeko egin beharreko bidea luzea den. Horren adibidetzat, etorkizuneko Euskal Unibertsitateranzko bidean emaniko hiruzpalau pauso aipatuko ditut jarraian, bidea eginez egiten dela eta jadanik bidean abiatuta goazela kontura gaitezen.

Hasteko, pozik esan dezakegu ezen UEUk berak bestelako laguntzak jaso eta aurrerapausoak eman dituela. Hain zuzen, 2000-01 ikasturtean bi egoitza berri sortu eta finkatu ditu, biak ere goi-mailako zerbitzu unibertsitarioak urtean zehar eskain-

tzeko asmoz; ez soilik udan, alegia. Bi egoitza finko horiek Bilbon eta Eibarren daude. Bizkaiko hiriburukoak lehenagoko zerbitzuen sendoketa ekarri du, eta, agian horregatik, ez da hain nobedosoia izan. Lokal berri eta zabalak Bilbo zaharraren kale estuetan, Bizkaiko Diputazioarekin eginiko hitzarmenari esker, Ibaizabalen uren hegalean, Bilboko Erriberan. Bertan, zenbait ikastaro eta bilera egiteko toki ezin egokiagoa eskaintzeaz gain, UEUk argitalpen-lanak prestatzeko eta azpiegitura sendotzeko modua ere izango du. Eibarko egoitzak bestelako bideak urratzeko aukera ekarri du berekin. Aintzinako *Markeskoa* jauregi ederrean egoitza harturik, eta Eibarko udalarekin lankidetzeta-hitzarmena onartu ondoren, jadanik graduondoko ikastaroak antolatu dira 2001-2002 ikasturtean, euskaraz noski, euskal unibertsitateko lana egunez egun egin daitekeela frogatuz. Zinez, beste maila batera igo dira UEUren zerbitzuak, zeren jadanik masterrak eta graduondoko ikastaroak eskaintzeko eta gauzatzeko gai baita unibertsitate hori, bere ekitaldiak urte osora zabalduz, izenez “udakoa” dena izanez “urte osokoa” bihurtzeko bidean. Aurrera doa, beraz.

Horrez gain, badira Euskal Unibertsitateranzko bidean emaniko bestelako pausoak ere. Esaterako, horrelakoa da irakasle euskaldunen elkarteak emanikoa. Preseski, duela bi urte abiatutako irakasle unibertsitario euskaldunen elkarteak, EIRE ize-nekoak, goi-mailako kongresua antolatu eta egin du 2001eko urrian, “Euskal Unibertsitatea, 2021” izenburupean. Kongresu horretan oso lan interesgarriak aurkeztu dira, besteren artean gaur egun Euskal Herrian dauden unibertsitateetako egoera sakonki aztertuz, balizko euskarazko unibertsitateko kide izan daitezkeen ikasle-irakasleen datuak argituz, eta argi erakutsiz ezen gaur egun jadanik horrelako proiektu serio eta kalitatezkoa abiatzeko moduko masa kritikoa gainditua dugula: Euskal Unibertsitatea deritzoguna gaurdanik egin daitezkeen proiektua da. Bitartekoak jartzean datza gakoa. Horren adierazgarri, esan beharra dago ezen —eta datua ez da anekdotikoa, funtsezkoa baizik— goi-mailako kongresu horretan erabili den komunika-

ziorako eta txostenen aurkezpenerako hizkuntza euskara izan dela —atzerritik etorritakoen ponentziak salbu, non ingelesa eta katalana erabili den—, horrela praktikara eramanez etorkizuneko Euskal Unibertsitatean oinarritzakoa izango dena, euskara unibertsitateko lan-hizkuntza izatea, alegia. Ez baitago hasieratik bertatik etsenpluaz predikatzea baino jokabide hoberik.

Baina ez dira irakasleak Euskal Unibertsitatea eraikitzeko lanean diharduten bakarrak. Ikasleek ere beren kongresua antolatu dute azaroaren hasieran, hain zuzen ere irakaskuntza-sistemaren arlo desberdinak euskalduntzeko plangintzak planteatzeko eta aldarrikatzeko asmoz. Bereziki azpimarratzekoa, oso lan interesgarriak prestatu dituzte orain arte alde batera utzita egon den Lanbide-Heziketaren arloan, proposamen zehatzak eta baliagarriak eginez. Eta zer esanik ez, unibertsitatea benetan euskalduntzeko proposamenak ere oso kontuan izatekoak dira, bertako agintariei aurrea hartuz, eta helburuak argi azalduz. Zinez esan dezaket, langintza horretan ikasleak irakasle jokatu dutela, beren heldutasunaren maila agirian jarritz, eta, neurri batean, irakasle behar genuenok lotsaraziz; edo apaltasun-ikasgai bikaina emanaz, behintzat.

Eta, azkenik, euskal gizartean dagoen kezka adierazle, eta aipatutako euskal unibertsitateranzko bide aldapatsua eginez doan seinale, diogun ezen politikaren mundutik ere pausoak emateko asmoa azaldu dela berriki. Izan ere, urteetan arlo hori ezinezkotzat jo eta bazterturik eduki ondoren, behingoz, unibertsitate-lege propioa prestatzen ari direla adierazi dute Eusko Jaurlaritzatik bertatik. Hain zuzen, espainiarrek estatu osorako unibertsitate-lege berdintzaile eta zentralizatzaile berria egiten dihardutenean, eta Madrildik lege hori gure borondatearen kontra inposatu nahi diguten une honetan, badirudi ezen behingoz euskal politikariak ere konturatu direla, etorkizuneko Euskal Herriaren oinarrietako bat benetako euskal irakuskuntza-sistema osoa izan behar dela, eta hori geuk

egin behar dugula eta geuk horren alde agertu behar dugula, baita borondate politikoa agertuz ere. Gasteizko gobernuan irakaskuntzaren arloan ardura nagusia duen kontseilari berria horrela mintzatu zaigu, bederen. Bejondeiola, azkenean proiektu propioaren premiaz konturatu bada, eta ekimen horren bidez irakaskuntza-arloko eskuduntzak —hitzez behintzat— dituen autonomia-estatutua antzu gerta ez dadin lortzen badu. Dena den, dugun eskarmentua kontuan izanik, horretan “santotomastar” hutsak garenok, benetan sinesteko, aldez aurretik ikusi egin behar dugu euskal irakaskuntza-sistema propio hori eraikitzeko kemena praktikan jartzen dela. Ailedi egiazkoa, hitzezko borondate hori!

Izenburuan jarritako hitzekin amaitu nahi nuke hausnarke-ta. Zinez uste dut jadanik etorkizunerako Euskal unibertsitate-rantz abiatuta gaudena, nahiz aldats gora goazen. Horretan du-darik ez dago, nekea eta izerdia begien bistakoak baitira; baina horrek ez gaitu tristatu behar, baikor bihurtu baizik. Argi dago, bai, nekez goazela, aldats gora joan behar baitugu; bai-na, halaber, gorantz goazen seinale. Goraino iristeko asmoz, gainera, eta gailurrera iritsiko garelako konfiantzaz. Hasieratik ere bagenekien bidea luzea eta aldapatsua izango zela; baina poliki-poliki pausoak ematen ari garela sumatzen dugu, eta ziur gaude lortuko dugula, gure herriaren etorkizunerako —edo etorkizunean gure herria herri modura bizi dadin— Euskal Unibertsitatea funtsezko oinarria baita. Eta, zalantzarik ez dut horretan, Euskal Herriak bizitzea erabaki du.

*J. R. Etxebarria*